

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aurora Bascaran Martínez

*Eibar,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



1933an jaio zen Eibarren. Aita, Benigno Baskaran eibartar sozialista ezaguna. Ume txikia zenean Gerra Zibila hasi eta Frantziara joan zen familiakoekin batera. Bertan, beste errefuxiatu batzuekin batera egon ziren. Gerra amaitu zenean Eibarrera itzuli eta orduan ezagutu zuen sakonago aitona, Marcelino Baskaran (Eibarko lehenengo abade laikoa). Aurora, 80. hamarkadan politikan parte-hartze zuzena izan zuen eta herriko alkate eta Espainiako Gorteetan senatari izatera iritsi zen.

Zintak

AB-116

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte
- **Data:**
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** CD

AB-186

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-14
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-187

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-21
- **Iraupena:** 102 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-188

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-28
- **Iraupena:** 93 min

- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-189

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-03-08
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-263

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-01-12
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Altzibar, Maider

AB-265

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-01-16
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Hi8

Pasarteak

1. Jatorria; grabatzen ikasten

- **Erref:** AB-186/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Concharen aita, Aquilino Martínez. Eibarren jaiotakoa, Aquilino grabadorea zen ogibidez. Bidebarrieta kalean bizi ziren eta seme-alabak hazi arte kanpoko bi mutil hartu zituen lanean laguntzeko. Gerora, Concha aitarekin hasi zen grabatzen; hasieran pikatzen ikasi zuen eta gero zilarrarekin grabatzen.

2. Concharen lehenengo urteak Uberako baserri batean

- **Erref:** AB-186/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

<p>Conchak bere anaia nagusiagoarekin zuen adin-tartea oso txikia zen eta ume-umetan Uberara bidali zuten bularra hartzera. Orduan jende askok ezin

izaten zuen semea edo alaba etxean hazi eta baserriren batera eramaten zuen.</p>

3. Erromeriak Uberan; Baserriko bizimodua emakumearentzat

- **Erref:** AB-186/007
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Erromeriak Uberan. Erromeria zelakoa zen. Jai handia egiten zen: aurrekua, filarmonika, danbolina... Aurrekua dantzatu ondoren ohitura zen txapela neska bati ematea; behin berari tokatu zitzaion. Conchak nahiago zuen kaleko bizimodua; errazagoa zen emakume batentzat.

4. Bilbora neskame urte batzuetan

- **Erref:** AB-186/009
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Concha Uberatik itzuli eta aitarekin grabatzen ikasi zuen. Dibujo-eskolara joaten zen, "Kontsejura". Aita hil eta handik denbora batera Bilbora joan behar izan zen neskame. Beti izan du eskolara joan ez izanaren damua. Bilbora zelan joan zen kontatzen du: Uberako familiakoen bitartez, e.a. Eibarko neska gehiago zeuden Bilbon.

5. Benigno Baskaran: ikasketak eta lana

- **Erref:** AB-186/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Benigno zelan eta noiz ezagutu zuen. Lehenengo Bilbon jardun zuen lanean; gero Madridera joan zen lanera. Argazki bat erakusten digute (Eskola Armeriako promozioko lehena izan zen Benigno). Gerran abiazioko arduradun izendatu zuten.</p>

6. Eibar herri liberala; Elgetatik jende asko Eibarrera lanera

- **Erref:** AB-186/013
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:24:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Elgetatik jende asko etortzen zen Eibarrera lanera. Eibarrek fama txarra izan zuen garai batean, liberala zelako. Elizaren indarra gizartean.</p>

7. Marcelino Baskaranen jatorria

- **Erref:** AB-186/014
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

<p>Marcelino Baskaran nolakoa zen. Umetan meza-laguntzailea izan zen Arraten. Eskolara ere bertara joan zen. Maiorazgoa baserrian geratu zen eta Marcelinok Eibarrera jaitea nahiago izan zuen, ofizioa ikastera.</p>

8. Eibarko sozialismoaren aurrekariak

- **Erref:** AB-186/015
- **Iraupena:** 0:06:00. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Sozialismoaren sorrera Eibarren; aurrekariak. XIX-XX. mende hasieran, Eibarko gizartearen ezaugarriak zeintzuk ziren: langileria, desberdintasunak, lanorduak... Sozialismoa Bizkaian. Abertzaletasunaren sorrera. Bilboko egoeraren azalpena: oligarkia, boterea... Hainbat idazleren aipamena egiten du (Toribio Etxebarria, Meabe, Mario Onaindia, Ion Juaristi...).</p>

9. Marcelino Baskaranen jardura politikoa

- **Erref:** AB-186/016
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Eibarko egoera zehatza zein zen. Marcelino Baskaran 1897an sortutako lehenengo Agrupazio Sozialistako bokala izan zen. Udalbatzan ere parte hartu zuen (alkateorde bezala). UGT-ko kide hasiera-hasieratik. Aurorak Marcelino gerra ostean ezagutu zuen. Pablo Iglesiasen mitina. Marcelino Bergarako kartzelan egon zen.</p>

10. Marcelino Baskaran eta Aquilino Amuategi

- **Erref:** AB-186/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Marcelino eta Eibarko euskara. Inguruko herrietan, kostaldekoetan batez ere, eibartarrak ez zeuden ondo ikusita, "gorriak" ziren. Elizaren indarra Euskal Herrian. Mitinak Aquilino Amuategirekin batera ematen zituen. Aquilino eta abade baten arteko hika-mika ospitaleko junta udaletxearen mende zegoela eta.</p>

11. Lehenengo sozialista eibartarren borroakak

- **Erref:** AB-186/024
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

<p>Aquilino zelakoa zen. Lehenengo sozialisten burrukak-nahiak zeintzuk izan ziren: 3/8 orduak; kultur-zaletasuna zabaltzea, etab. "Centro Obrero"an lehenengo, "Casa del Pueblo"an geroago, lan asko egiten zuten. Internazionalistak ziren. Sozialismoaren banaketa; gerora etorri ziren kalteak.</p>

12. Eibarko "Casa del Pueblo"a, kultura zabaltzeko gunea

- **Erref:** AB-186/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

<p>Eibarko "Casa del Pueblo"a, kultura zabaltzeko tresna garrantzitsua izan zen. Liburutegia, hitzaldiak... Tertuliak oso ezagunak ziren garai hartan Eibarren. Gerra ostean Txaltxa tabernan elkartzen ziren Benigno eta lagun batzuk berba egiteko.</p>

13. Eibartar sozialistak: Baskaran, Amuategi, Etxebarria...

- **Erref:** AB-186/026
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

<p>Aquilino eta Marcelino izaten ziren mitinetako hizlariak. Izaera desberdinekoak ziren biak. Meabe, Madinabeitia, Toribio. Toribio Etxebarria zelakoa zen. Eibarko eta Bilboko sozialismoak, desberdinak ziren, egoerak ere desberdinak zirelako.</p>

14. Sozialismoaren garapena XX. mendean zehar

- **Erref:** AB-186/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:03:00. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Sozialismoaren aldaketa XX. mendean zehar. Gerra osteko egoera Auroraren ikuspuntutik.</p>

15. Gerra osteko sozialismoaren aldaketak

- **Erref:** AB-186/032
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:05:00. **Bukatu:** 01:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Gerra aurreko eta gerra osteko sozialismoaren arteko aldaketak. Lehengo sozialismoa erradikalagoa zen. Eibartik kanpo zelan ikusten zituzten eibartar sozialistak.</p>

16. Eibarko sozialismoa eta kooperatibak: Alfa lantegiaren sorrera

- **Erref:** AB-186/034
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:12:23. **Bukatu:** 01:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Marcelino Baskaran, Toribio Etxebarriarekin batera, Alfako sortzaileetako bat izan zen. Alfa: akzioak; ekonomatza. Alfaren lehenengo egoitza; hasierako produkzioa. </p>

17. Alfa lantegiaren sorrera

- **Erref:** AB-186/035
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:15:28. **Bukatu:** 01:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Alfa lantegiaren sorrera. Kooperatibismoa.

18. Errepublika aldarrikatzen

- **Erref:** AB-187/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika aldarrikatu aurreko egunak eta errepublikako ikurrina udaletxeko balkoian jarri zeneko anekdotak kontatzen ditu Aurorak. Herrian zegoen giroaz hitz egiten du batez ere.

19. Errepublika aldarrikatu eta bildurra

- **Erref:** AB-187/016
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika aldarrikatu ondoren Eibarren bizi izandako egoera kontatzen du Aurorak; beste herrietan aldarrikatu baino zortzi edo hamabi ordu aurretik aldarrikatu baitzen Eibarren.

20. Bascaran aita semeak

- **Erref:** AB-187/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Benigno Bascaran "Juventud socialista" eta UGTko kide zen baina ez zuen parte hartze politiko zuzena izan Errepublika aldarrikatu zenean. Aita ordea, udaletxeko zinegotzi eta garai batean alkate bezala ere egon zen. Benigna errekadistare anekdota kontatzen du Aurorak; Bilbora errepublikako ikurrinarekin joan baitzen errepublika Eibarren bakarrik aldarrikatuta zegoenean.</p>

21. Errepublika garaiko aldaketak

- **Erref:** AB-187/020
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 01:09:29. **Bukatu:** 01:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Eskoletan aldaketak egitea izan zen alderdi garrantzitsuenetariko bat errepublika aldarrikatu zenean, baina egoera politikoa oso desegonkorra izan zen. 34ko iraultzan parte hartu zuen Auroraren aitak, ondorioz, Benigno Bascaran kartzelaratu egin zuten.</p>

22. Irakurzaletasuna gerraostean

- **Erref:** AB-187/022
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:22:26. **Bukatu:** 01:25:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>34ko iraultzan kartzelaraturiko eibartarrak kartzelan zeudela asko irakurtzeko ohitura zuten eta tertuliak egiten omen zituzten. Bertatik irten ondoren, zentsuraren ondorioz liburu asko ezin zitezkeen lortu baina Benignok lortu egiten zituen, eta alabari irakurtzeko uzten zizkion.</p>

23. Kartzelako bizimodua

- **Erref:** AB-187/024
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 01:26:27. **Bukatu:** 01:30:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>1934ko iraultzaren ondoren Benigno Baskaran kartzelan egon zen eta alabari kontaturikoa azaltzen du. Kartzelan eibartarren artean kooperatiba antzekoa sortu eta jatekoa denen artean banatzen omen zuten. Kartzelan lasai egon zirela eta lagunartean ongi bizi izan zirela esaten zuten eibartar askok. Benignoren inguruko pertsonaia garrantzitsuez hitz egiten du Aurorak; Toribio Etxebarria, Julian Etxeberria, Madinabeitia eta Lukas Alberdi, adibidez.</p>

24. Kartzelatik bueltan

- **Erref:** AB-187/025
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:30:34. **Bukatu:** 01:31:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Benigno Bascaran eta Eibartar sozialistak kartzelatik irten zirenean herrian egindako ongi etorria kontatzen du Aurorak.

25. 34ko atxilotuen ongi etorria

- **Erref:** AB-188/002
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Concepcioneek errepublikaren inguruko oroitzapen handirik ez du, Bilbon neskame lanetan ere aritu izan zen gaztetan eta agian Bilbon zegoen garai horretan. Hala ere, 34ko iraultzan Eibarren zegoen eta senarra kartzelan egon zen bertan parte-hartu zuelako. Concepcion eta Aurora ongi etorria egitera joan ziren Azitainera.

26. Eibarren fama txarra

- **Erref:** AB-188/010
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:40:34. **Bukatu:** 00:41:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

Eibartarrek fama txarra izan zuten inguruko herrietan. Elizara joaten ez zirelako eta gorriak zirelako izaten zela azaltzen dute.

27. Gerran gaixo

- **Erref:** AB-188/014
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:46:58. **Bukatu:** 00:48:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Gerra Zibila hasi ondoren, Bartzelonan zeudela Aurora elgorriaz gaixotu eta ospitalean egon behar izan zen bakarrik, kutsakorra zenez eta gerra garaia izanik Concepcion ere ezin zitekeen gaixoarekin egon.

28. Eibartik ihesi

- **Erref:** AB-188/015
- **Iraupena:** 0:08:33. **Hasi:** 00:48:27. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Aiton-amonekin joan ziren Bilbora arte eta, Marcelino Bascaran atzean geratu arren, gerora elkartu ahal izan ziren Murtzian. Bartzelonatik Frantziarako bidean bonbak botatzen zizkietela kontatzen du. Oinez joan behar izan zuten mendiz mugaraino.</p>

29. Murtziara ihes

- **Erref:** AB-188/016
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:57:00. **Bukatu:** 01:01:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Murtziara nola iritsi ziren azaltzen du Concepcioneek. Senarrarekin nola elkartu eta bidean izandako beldurraz hitz egiten du. Etxe baten bizitzan jarri ziren bertako ugazabarekin, hala ere, fronteak aurrera egin ahala gero eta gorago mugitzen joan ziren.

30. Frantzian kontzentrazio esparruan eta aterpean

- **Erref:** AB-188/020
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:03:37. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Ihes eginda zeudela Poitierseko aterpean sukaldari lanetan egon zen Concepcion, aterpea Eusko Jaurlaritzarena zen eta ez ziren Toulousera joan Benignok lana aurkitu zuen arte. Marseillan hondartzako kontzentrazio esparruan egon zen Benigno aurretik.</p>

31. Frantzian ihesi

- **Erref:** AB-188/023
- **Iraupena:** 0:06:02. **Hasi:** 01:09:00. **Bukatu:** 01:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerratik ihesi zeudela, Concepcion eta alaba Poitiersetik Toulusera joan ziren Benignok lana aurkitu zuelako. Toulusen zeudela, Alemanak ezarri zirenean Benigno atxilotu eta Concepcion eta Aurora aske utzi zituzten. Itsasontzian Mexikora joatekoak ziren baina Alemanek itsasontziak bonbardatzen zituzten eta ez ziren irten. Tuberkulosiarekin gaixotu zen Benigno gero eta etxean egon zen ezkutuan.</p>

32. Eibarrera itzultzen gerraostean

- **Erref:** AB-189/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Toni eta Alfonso Arrietaren etxean egon ziren Bascarandarrak Bartzelonan. Beraien laguntzari esker itzuli ziren Eibarrera. Trenean Bilbora arte joan zirela oroitzen du Aurorak. Bartzelonara iritsi ziren eibartar askori lagundu zieten Toni eta Alfonso senar-emazteek. Ihes egindako eibartar asko mediterraneo inguruan ibili baitziren.</p>

33. Gerraosteko errepresioa

- **Erref:** AB-189/009
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:13:06. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Sendatu eta lanean eta politikan sartu zen berriro Benigno Bascaran. 1950ean atxilotu egin zuten eta Martutenen zazpi hilabete pasa zituen. Irunera eraman zituzten lehenengo eta aitak bertan bizi izandako anekdota bat kontatzen du Aurorak.</p>

34. Gerrasosteko industria Eibarren

- **Erref:** AB-189/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Eibarko tailerrak martxan jarri ziren gerraostean eta boom industrialia eman zenean, herria oraindik berreraikitze prozesuan zegoen. Jende asko

bildu zen Eibar inguruan eta Ermuan bizi ziren askok Eibarren egiten zuten bizimodua; horregatik, Aurorak "ciudad dormitorio" deitzen dio. Aurrerago enpresak herri desberdinetan edatzen joan ziren.</p>

35. Eibarko ohituren aldaketa gerraostean

- **Erref:** AB-189/019
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:38:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

<p>Eibarren fabriketako langileak etxetik buzoa jantzita joaten zirela gogoratzen du Aurorak, oinez joaten ziren denak beti eta sirenarekin batera irteten ziren. Hala ere, gerra ondoren ohiturak aldatu eta kanpokoak etorri zirenean aldatzeko arropa eramaten hasi ziren. Oporraldietan etxera itzuli eta buelta jende gehiago etortzen zela azaltzen du Aurorak.</p>

36. Eibarren gerraostean goseterik ez

- **Erref:** AB-189/021
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:40:37. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraostean Eibarren errazionamendurako kartilla ezarrita zegoen Aurora eta Concepcion itzuli zirenean, baina gosete handirik pasa ez zutela diote. Okindegia martxan zegoen eta baserriko jatekoak Elgetatik ekartzen zizkieten. Eibarren susperraldia eman zen industriari esker. Etxearen inguruko anekdota bat kontatzen dute.

37. Benigno Bascaran gerraostean klandestinitatean

- **Erref:** AB-189/025
- **Iraupena:** 0:05:21. **Hasi:** 00:51:03. **Bukatu:** 00:56:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

Benigno Bascaran gerra bukatu eta sendatu zenean politikan hasi zen berriro ere. Eibarren sozialistak nazionalistekin klandestinitatean antolatuta zeudela azaltzen du Aurorak, 1950.urtean kartzelan sartu zuten arte. Aberri egun baten irratia asaltatu eta askatasun oihuak elarazi zituztela kontatzen du. Greba politikoak ere egiten zituzten eta Benigno askotan eramaten zuten Guardia Zibilek.

38. Lehenengo hauteskundeak gerraostean

- **Erref:** AB-189/030
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:10:04. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

<p>Benigno Bascaranek disgustu handia hartu zuen Eibarren gerraosteko lehengo hauteskundeetan nazionalistek irabazi zutenean, Eibar herri sozialista izan baitzen beti.</p>

39. Erregearekin hizketan

- **Erref:** AB-189/033
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:15:45. **Bukatu:** 01:17:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Concepcion senarrarekin batera erregearekin egon ziren Euskal Herrira egindako bisita batean eta eskopeta bat oparitu ziotela oroitzen du.

40. Aurora Bascaranen politikan hasiera

- **Erref:** AB-189/036
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 01:19:41. **Bukatu:** 01:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

Aurora Bascaran sozialistak aita eta aitonaren oinordekotzarekin jarraitu zuen. Politikan zelan sartu zen azaltzen du. Sozialista zaharrekin hitz egin ondoren alkatetzarako aurkeztea erabaki zuen. Alkatetzan zegoela bizi izandako gora behera desberdinez hitz egiten du.

41. Alkatetzan paktuak

- **Erref:** AB-189/037
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:25:20. **Bukatu:** 01:27:40

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Alkatetzan zegoela Aurorak paktua nolakoa izan zen eta izandako arazoez hitz egiten du; etxe batzuen inguruan eztabaida sortu baitzen udaletxean.

42. Legeladi polita

- **Erref:** AB-189/038
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:27:40. **Bukatu:** 01:28:53

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aurora Bascaran alkatetzan izan zen bitartean hainbat gertakari alde batera utzita legealdi polita izan zela dio. Udaletxeko giro ona oroitzen du, batzarretako gora berak alde batera utziaz.

43. Tomás Meabe aterpetxea

- **Erref:** AB-265/002
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:05:30

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Tomas Meabe aterpetxea nolakoa zen azaltzen dute: frontoia; iturria. Inaugurazio egunean, "La Romeral" bandarekin joan zen Salvador Kalamuara. 1934ko irailaren 29an inauguratu zuten aterpetxea. Argazki zaharrak ikusten dihardute.

44. Krisialdi ekonomikoa; Arrateko bidea

- **Erref:** AB-265/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:10:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Errepublikak aurreko alkatea, Timoteo Zubiate izan zen. Eibarko industrian krisialdi handia egon zen eta Arrateko bidea egitea erabaki zuten, Santiago Astigarraga Ibargain alkate zela.

45. Salvador Marzana: gizon ekintzailea

- **Erref:** AB-265/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:32:20

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Salvador Marzanak gaztetako urteen laburpena egiten du labur-labur: 12 urterekin aita hil, 13 urterekin lanean hasi (goizeko 6retatik arratsaldeko 5etara); lana bukatu ondoren Eskola Armeriara zerbait ikastera eta afal ostean Musika Bandaren entseguetara. 18 urterekin Gerra Zibila hasi zen eta 8 urtetan etxera itzuli gabe egon zen. 14 urterekin Alfan hasi zen lanean. Batallón de Trabajadores.

46. Tomás Meabe aterpetxearen aurrekaria

- **Erref:** AB-265/015
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:40

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Tomas Meabe aterpetxea; benetako aterpetxea egin aurretik beste txabola bat izan zuten.

47. II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren

- **Erref:** AB-265/020
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:57:20

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Secundino Loidi: Errepublikaren aldarrikapena; apirilaren 13an ez zen ezer gertatu. Aita udaletxeko konserjea zen eta familia osoa bizi zen udaletxean. Apirilaren 14ean, goizean goizago (oraindik eguna argitu gabe) jende asko hasi zen batzen udalean. Eguna argitu zenean Centro Republicano-ra joateko esan zioten banderaren bila. Udalean bildutako jendearen egoneza. Bandera errepublikarra aitak ipini zuen, 10:00ak inguruan. Untzaga plazaren izen aldaketa.

48. II. Errepublikaren aldarrikapena

- **Erref:** AB-265/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:58:35

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Arratsaldeko 16:00ak aldera iritsi zen Errepublikaren aldarrikapenaren konfirmazioa. Bandera errepublikarra noiz, nork ipini zuen.

49. Apirilaren 14a Eibarren

- **Erref:** AB-265/022
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:58:35. **Bukatu:** 01:00:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Salvador Marzana: etxera etorri zitzaien "Polkesia", Errepublikaren aldarrikapenaren berri ematen. San Andres kaleari Errepublika garaian Pablo Iglesias izena ipini zitzaion. Untzagara zelan jua ziran. Hauteskunde gauean emaitzak nola ezagutu zituzten; orduan egindako jaia.

50. "Muy Ejemplar Ciudad" izendapena

- **Erref:** AB-265/023
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:02:15

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Muy Ejemplar Ciudad izendatu zituzten Eibar eta Jaca. Hernandez y Galán militarren altxamendua nola gertatu zen azaltzen du; Eibarko Casa del Pueblo-an beraien argazkiak zeuden.

51. Altxamendu militarra Jacan

- **Erref:** AB-265/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:02:30. **Bukatu:** 01:03:45

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera

Laburpena:

Jacan altxamendua egin zutenean, militarrek Eibarrera etorri ziren. Orduko kontuak.

52. Untzaga plazaren izen-aldaketa

- **Erref:** AB-265/026
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 01:03:45. **Bukatu:** 01:07:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Salvador: "Eltzartza" igo zen eskailerarekin Untzaga plazaren izena aldatzera; hiriburuetatik aldarrikapenaren berria iritsi zenean gertatu zen, arratsaldeko 17:00ak inguruan. Plaka zaharra kendu eta kartoizko probisional ipini zuen. "El eibarrés es inmortal, ..." kanta.

53. Apirilaren 12ko hauteskundeen emaitzak

- **Erref:** AB-265/028
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:09:05. **Bukatu:** 01:11:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Secundino: Mateo Kareaga bidali zuten koartelera aldarrikapenaren berri ematera. Udaletxean 17 zinegotzitik 7 errepublikarrak ziren, 9 sozialistak eta Mateo guztietatik gazteena.

54. Niceto Alcalá Zamora Eibarren

- **Erref:** AB-265/032
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:16:20. **Bukatu:** 01:17:50

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Niceto Alcalá Zamora Eibarrera etorri zeneko kontuak. Queipo de Llano. Gerra garaiko kontuak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com